



LIBURUA

# Denbora-bidaia emozionala



DANI BLANCO

## VHS OIER GUILLAN

SUSA, 2020

**AMAIA ALVAREZ URIA**

**A** din batetik aurrera gaztetako oroitzapenei buruz hitz egitean “duela 20 urte” (edo gehiago) esanez hasi edo amaitzen dira kontakizunak. Kasu honetan hala gertatzen da, duela 23 urteko gertaerak zehazteko helburua duelako eleberraren protagonistak. Izan ere, garai hartan eraiki zen gaur egungo bere nortasuna, bere bizitzako denbora-lerroan mugarri izan zen bidaia batean.

Esandakoengatik 1970eko hamar-kadan jaiotakooi oso ezaguna egingo zaigu liburu honetan topatuko dugun giroa: lagunentzako gustuko musikarekin grabatutako kaseteak edo gutun bidezko harremanak. Izenburuak ere orduko teknologiarri egiten dio erreferentzia, narratzaileak dioen moduan, “iraganaren metafora” izan daitekeelako VHSa.

Hasieran badirudi nobela beltz baten aurrean gaudela (ilehoria detektibe emozionalarengana doa hilketa bat argitzeko asmoarekin eta ikerketa abiatzen dute testigantza zenbait bilduz). Baina egileak poesiatik eta antzerkitik edaten du narrazio luze hau sortzeko, eta saiakera ere agertzen da.

Interesgarria iruditu zaigu pertsona baten inguruko eta gertaera bati buruzko bertsio desberdinak aurkitzea, (hala ere, akaso leku gehiegi hartu du liburuan?). Protagonistak dioenez “memoria ariketa kolektiboa da”. Azken aldian asko hitz egiten da memoria historikoaz. Gehienetan, horren atzean Gerra Zibila eta Euskal Gatazka ditugu, eta esker-tzen da letra xehez idatzitako memoria historikoa egiteko saiakerak ere egotea, errealitatea erabiltzea fikzioa egiteko

eta fikzioa errealitatea kontatzeko.

“Nire gorputza denboraren makina bat da” esaldiarekin hasten da nobela eta tarteka errepikatzen da. Esaldi horretan biltzen da eleberrri honen funtsa: ni-aren inguruan eraikita dago; alderdi sensorial, sexual eta emozionalak oso presente daude; ahazten eta gogoratzen dugunaren inbentarioa egiten dute; teknologia berriei buruz aritu beharrean, teknologia zaharrak agertzen zaizkigu; norberaren ispilu dira lagunak.

Pandemia eta elur sasoirako a proposa da liburu hau, (barne) bidaia egiten duelako oroitzapenetara mugikortasuna mugatuta dugun egunotan, eta ikerketa emozionala proposatzen digulako bizitako une erabakigarriei erreparatzeko. Hausnartzera eta birkokatzerara bultzatzen gaitu, umorea bazter utzi gabe. ●